

Berriz

Bolibar

Markina

Berriatua

Ondarroa

# Artibai ibarra

# 10





# 10



## **Artibai ibarra**

Ibilbidea, BI-633 errepidean zehar doa, Durangaldea Kantauri itsasoarekin lotuz. Berrizko auzorik biztanletsuen eta hiri kutsurik handiena duen Olakueta auzoko bidegurutzetik abiatzen da, Ondarroa herri arrantzalean bukatzeko.

### *Aurreko orrialdean:*

*Ziortzako klaustroa. Yrusta abadearen ekimenez, Santiagoren maskorrak landu ziren, abegiaren bereizgarri.*

### *Orrialde honetan:*

*Ziortzan kolejiata, klaustroa, abadetxea eta maizter edo kolonoen etxeak izan zirenak patio baten inguruan daude.*

### *101. orrialdea:*

*Berriz. San Joan Bataiatzailearen eliza. Koru errenazentista ederrak (1559) kare kolomatxoduna dauka, eta erdian pulpituia.*

### Berriz

Elizate honetan bi giro suma daitezke: historikoa, Elizondokoa, eta modernoa, beherago eta hura baino lehenago dagoena, Olakuetakoa.

### Done Joanes Ebanjelaria

Elizondoko funtsezko zatia osatzen du, udaletxearekin, antzinako etxe onuradunekin –gaur egun ikastola bihurtuta–, txalet batekin... Eraikin handia da, habearte luze eta zabal batek, lau tarte eta burualde poligonala dituenak, osatua; burualdeak dorre bat du itsatsia oinetara. Kanpotik harriaren egindako fabrika-lanak dira aipatzekoak: iparralderako horma hermetikoa, barrutik gotikoan modan egon zen gangaren nerbidun sabaia, burualdean diseinu makurreko osagaiak dituena.

Balio handiko beste osagai bat korua da, azken tartearen gainean igoarazia, zirkulu-kate batez loturiko zutabetxoetako karelarekin, erdian anboi borobila duela.

Estilo errenazentistako eraikina, hainbat fasetan egindakoa: 1550-1560 urte bitartean (oinen aldea) eta XVII. mendearen hasiera (burualdea). Martin Arluziaga izan zen azken aldearen arduraduna, eta Martin Carrera dorrearena, barrokoa, 1760. urtera arte eraiki ez zena.

**Erretaula nagusia.** Itzelezko obra, polikromatu gabeko zuraz egindakoa, ganga oktagonalek guztia betetzen duen esferaren laurdeneko ganga aukeratu duena. Mahatsondo-irudiak dituzten zutabe salomonikoak dauzka, apaindutako ebanisteriaren ale ederra, barrokoaren osagaiak jasotzen dituena. Molduretako apaingarrietan eskultura bakanak eta mihiseak dauzka. Margolanek, 1704. urtekoak, Madrileko inspirazioa dute, argi eta garbi, eta Nicolas Antonio de la Quadra margolariarenak izan daitezkeelakoan gaude. Altzaria, Martin Zalduak (1695) diseinatutakoa da, eta Martin Olaizolak egindakoa.

### Bolibar

Iruzubietan ezkerreko bidea hartu behar da eta bi kilometro aurrerago Bolibar herrira iritsiko gara, hiri-gutuna jaso zuten

Bizkaiko herrietako batera, lerrokatutako etxe-ilara laburrean antzeman daitezkeenez.

### Plaza

Plaza honetan hainbat ondare-osagai elkartzeko dira: **San Tomas eliza** errenazentista, kontrahormetan kapera garaiak dituena; **Bolibar-Jauregi etxea**, berau ere errenazentista; **Coromoto ermita** barrokoa, parrokiako elizpeari lotuta; eta udaletxeko jauregi neoklasikoa. Eta gainera bi monumentu, elkarrengandik oso gertu –oso bitxia dena–, **Longa** gerrillariaren eta **Simon Bolibar** askatzailearen omenez eraikiak, bigarrenaren omenezko museoa ere badelarik kalearen amaierako etxetzar batean.

### Ziortzako multzoa

Bolibarren gainean, Ziortzan hainbat osagai bitxi aurki ditzakegu: eliza, klaustro eta arkupearekin, antzinako ospitalea (egun berriro eraikia, baina ostatu gisa erabiltzeko), abadearen etxea eta kolonoenak, hori guztia esparru itxi baten barruan. Oso zaharra –968koa– eta historiaren eta legendaren artean iltzaturik, abadiaren jatorria ageri da, egun ziestertarren monasterioa izanik.

Eliza, neurritz egokia, estilo gotikokoa da, 1500. urte ingurukoa, bi tarte gehi burualde estua eta bi kapera dituen habearte bakarrekoa, kaperetariko bat pribatiboa delarik, Irusta abadearena, hilobimonumentua eta burdin hesi batez itxia.

**Hilobiko arkosolioak** abadea bera azaltzen da, Santiago erromesak lagundurik, Donejakue bidean zebiltzan erromesei Ziortzan emandako laguntza irudikatuz; eskultura biak Guiot Beaugrant eskultorearenak dira, 1540. urte ingurukoak, baita espazioan nagusi den **Larritasunen erliebea** bera ere. Multzo osoa errenazimentu espresiboaren garaikoa da.

**Erretaula nagusia**, XVIII. mendean egindako pedrela zuriaren gainean dago jarrita. Erretaularen egitura: bi solairu gehi atikoa eta hiru kale, egitura errenazentista, ornamentu plateresko ugariz apaindua –«putti», «candelieri» eta



beste «grutesco» batzuk– estilo horretan pintatutako oholetarako, Italiatik ekarritakoak, Francisco Vazquezenak, 1543 urte ingurukoak.

Alboetako bi erretautetik, biak rokokoak, eskuinekoa da garrantzirik handiena duena, horko Arrosarioaren taila 1745ean gorteko Luis Salvador Carmona irudi-egileari erosi zitzaion eta.

**Organo** honek Bizkaiko kaxarik zaharrena dauka, 1686an Josef Etxebarriak sinatua. Munibe familiaren mezenasgoari esker eskuratu zen. Badabil.

**Klaustroa.** Balio handikoa, kalitatez zein Bizkaian gorde diren estilo errenazentista bakanetako bat delako, 1547az geroztik Irusta abadeak sustatua; abade horrek Donejakueko txirlak heraldikaren ikur gisa hartu zituen. Elkarren gainean dauden arkuetako bi solairukoak, eta obraren zuzendaritzan Martin Bolibar eta, ondoren, Juan Olate, bertako harginak, txandakatu ziren.

**Atariak** balio etnografiko handia du, xvi. mendeko herri zurgintzaren adibidea da (1560, Pedro Horma maisua) eta basapiztien protomoak ditu.

### Markina

Berriro atzerantz egin, Iruzubietako bidegurutzeraino, eta Erdotza ermita gotikoaren aurretik igaro behar da (xviii. mendeko santu txikia) Markinara iristeko. Historia handiko herri honetan ikusteko gauza asko daude.

### Hirigintza

Markinak 1355ean jaso zuen hiri-gutuna, Tello jaunaren eskutik. Harrez gero hirigunea eta hiru errebalak osatuz joan ziren, hirigunean elkartzen ziren bide zaharretatik abiatuta. Horien diseinua bitxi samarra da, hiru kale nagusiak (Guen Kalea, Erdiko Kalea eta Kale Okerra), kantoi batek, haiek baino nagusiagoa eta alde batera dagoenak, moztu egiten baititu: Zear Kaleak. Esparruaren barruan, esparru horrek bere atek galdu baditu ere, lau solairuko etxebizitzak daude, hainbat jauregi eta dorretxerekin batera. Barrualdean ez dago plazatarako tokirik,



### Orrialde honetan, goian:

Ziortzako klaustroa inguratzen duten lau hormarteek bi arku-ilara dauzkate, bata bestearen gainean. Ibiltokiak gangatxo ez estalita daude.

### Orrialde honetan, erdian:

Erdi-puntuko arku bat zeharkatuta, galtzada harriztatu honek Ziortzako multzoan sartzen den igarobideraino garamatza.

### Orrialde honetan, behean:

Markina. Karmeldar Oinutsien komentua. Birjina Neskaren erretaula antiklasikoa. Haren kale nagusia antzoki eszenategi bat da.



#### *Orrialde honetan, goian:*

*Xemein. Erretaula nagusia, Lehen Errenazimendukoa. Azaltzen diren pasarteak eta mukulu-eskulturrak ebanisteria lan xehe-xehearen emaitza dira.*

#### *Orrialde honetan, behean:*

*Markina. Goiko Portaleko iturria. Errotuluak euskarazko testu publikoak dira, zaharrak eta, horrexegatik, oso preziatuak.*



beraz harresitik kanpo eman zaio tokia, Zelai edo Pradu pasealekuan.

**Udaletxea** errenazentista da eta aterpe dinteldua dauka; udaletxearen ondoko **Antxia eta Antxostegi dorretxeak** gotikoak dira; Antsotegi eta Solartekua (Lucas Longa, 1666) jauregi barrokoak dira, besteak beste, kale-zerrendako eraikin aipagarrienak.

#### **Karmeldarren komentua**

Karmengo errebelean, ezkerretara. Eliza eta klaustroa dira komentuarien osagai nagusiak. Elizak duintasun handiko fatxada dauka, harlanduzkoa eta zorrotza, Erdiko zatiaren alde bietan kanpai-horma bana duela, behealdea hiru tartetan eraturta. Kanpoaldetik, bolumenak oso argiak dira, ornamentua, berriz, gehiago azaltzen da barrualdean, ganga-eremuan, eremu hori elkarren gaineko hiru habeartetan antolatuta dagoela, lau tarterekin gehi gurutzua. Karmeldarren ohiko tenplua, 1724an inauguratu zen. **Erretaula nagusia**. Presbiterioko buruhormaren gainean, alboko San Jose eta Santa Teresaren irudiekin multzoa osatuz; hiru eskulturrak barrokoak dira, erraboldun zutabeetan oinarrituta, eta Santa Teresa Jesusenaren Frai Frantziskok diseinatutakoak.

**Andra Maria Hauraren erretaula** (karmeldarrez jantzita) gurutzeko eskuineko kaperan dago, oinaren tipologia kizkurra, Erdian antzerki itxurako antzeztokia osatzeko, dela eta, oso interesagarria delarik: antzerki sakratua, oso barrokoa eta antiklasikoa, erdi horretan hiru taila jarri direlarik. 1740. urte ingurukoa da. **Organoa**. Aquilino Amezua organo-egilearen lana da, 1891ekoa.

#### **Goiko Portaleko iturria**

Goiko aldean duen taila XX. mendekoa da, gainerako guztia ez, 1787koa data baitauka. Iturriak lauki formako aska dauka eta ura zutabearen bidez datorkio. Zutabearen oinetan euskaraz idatzitako kartelak ditu. Estilo neoklasikokoa da, Francisco Etxanobek egina. Era honetako iturriak oso hedatuta daude.

#### **Xemeingo Andra Maria eliza**

Fundatzaileak Markinari hiri-gutuna eman zionean, markinarrek eliza ondoko Xemein elizateko auzotarrekin konpartitu behar zutela erabaki zuen, eta 1952an elizate horrekin lotu zen bide zibiletik.

Eliza guztiz zabala, neurritz harrigarria, eta solairua honela dago antolatuta: arraseko hiru habearte gehi burualde angeluzuzen oblongatua eta lau tarte. Ikaragarriko sei zutabe, kapitelik gabekoak, dira espazioak zehazten dituztenak eta nerbio zuzen eta makurretako gurutzeriako izar-gangari eusten diotenak. Oinetan, arku handi baten gainean, kanpai-hormako dorrea dago, eta hegoaldeko du sarbidea, ganga-formako atariaren azpitik.

Zutabeetako tenplu errenazentista handia, 1512. urtean hasi ziren obrak eta 1546an zutabe eta gangak egiten ziharduten, Martin Albisuaren zuzendaritzapean eta Pedro Andrino eta Juan Emasabelekin.

**Erretaula nagusia**. Kapera nagusia betetzen du. Garrantzi handiko obra zizelkatu honek «erromatar era»ren erreferentzia ugariko altzari sailkatuak ditu, baita plateresko aurreratuenak bere mazoneria polikromatuan 1526. urte ingurukoa izango da eta egian Gasteizko Juan Aiala 1.a irudiegilea hartu zuten obra hau egiteko.

**Alboetako erretaulatan, San Frantzisko Salesekoa eta Arimak**, interesgarriena bigarren erretaularen pintura da, Pedro Brehevillarena, 1708koa. **Jesusen Bihotza eta Arrosarioarenak**, Hilario Zabalaga erretaula-egileak kobratu zituen 1659an.

#### **Hilerria**

Euskal Herriko «extraecclesiam» motako nekropoli garrantzitsuenetariko bat, arkupeko aukera delako –ia Pompeiako etxe bateko patioaren birsorkuntza da– eta diseinuaren arkeologiagatik, Erroman eta Egipton sortutako hizkuntzen nahasketa delako. Kanposantu mota honetan hillobiak aterpean jarri ohi dira. Munibetarren harrizko panteoia izan ezik, lorategiko gainerako hillobiak berriak dira. Hilerriaren egilea, Jose Laskurain, 1851n egina.

### Arretxinaga ermita

Hirurehun bat metro egin ondoren, Arretxinagara iritsiko gara, eta bertan Done Mikeli eskainitako ermita bat dago, santuaren taila berez eusten diren harkaitz handi batzuen artean jarrita egonik. Taila inguratuz, eraikin hexagonal bat, behean nitxodun kaperak eta goiko solairuan tribunak. Josef Lizardik egindakoa (1737).

Oinplanoaren berezitasuna eta batez ere harkaitzena –fenomeno geologiko naturala, silizezko bloke uniforme batzuk– dira ermita honetan gehien baloratzen diren osagaiak; gurtza edo kultuko toki oso zaharra da, beharbada kristautasunaren aurretikoa. Arretxinagak misterioz beteriko tokia izaten jarraitzen du.

### Ubilla dorretxea

Errepidearen ondoko hondakinak, ezkerretara, jatorrizko fatxadaren zati bat baino ez da geratzen. Lehen errenazimenduko landa-jauregi guztiz noblea zen, 1525. urte ingurukoa. Arkuko leiho aberats eta dintelduak ziren gehien baloratzen zirenak, gotiko eta errenazentistaren arteko zalantzazko estilokoak.

### Berriatua

Nekazaritza giroko elizatea, ibarreko toki atsegina, bere lurretan industrialde bat eraiki da.

### Done Petri Eliza

Horma-bularren artean kapera garaiak dituen habearte bateko estilo errenazentistako oinplanokoa, espazio angeluzuzena hiru tartetan banatua. Oinetan arkupe bat du, erdian dorrea duela. Martin Albisua maisuak egin zituen elizako obrak 1552 eta 1562 urte bitartean eta, ondoren, Juan Askartzak. Dorrea, berriz, neoklasikoa da eta Alejo Miranda eta Juan B. Balaunzaran akademikoek egin zuten hari buruzko txostena 1807. urtean.

### Etxe Pintxu

Errepidearen ezkerreko aldean, elizateko erdigunean, dagoen etxe bitxia. Lau

### *Orrialde honetan:*

*Arretxinaga. Haitz hauen inguruan ermita barroko eta hexagonal bat eraiki zen, San Migelen izenpean, baina leku hau askoz lehenagotik bide da gurtza-tokia.*

### *105. orrialdea, goian:*

*Ondarroa. Santa Mariako pinakulua. Leihoetan, balaustradetan eta pinakuluetan Flandes edo Borgoinako tailagileen egikera adierazkorra igartzen da.*

### *105. orrialdea, behean:*

*Bataiarria, kareharri mardul batean landua. Gotiko berantiarraren zantzuak ugariak dira.*



isuriko teilatua duen etxe arrunta da, baina gauza bat du bitxia, fatxadako horma-irudiak, ezpata-duelu edo borroken eta zaldunen bileren eta landa-paisaien irudiekin, –herrixkakoak–, denak frantsesek atsegin ohi zuten estilo rokokoan egindakoak. Irudiak laukitan bilduta daude, eta pertsonaiak garaiko eran daude jantzita.

**Arantzibia dorretxea**

Errekan beheara eginez, Arantzibia dorretxea uren joan-etorriaren beste aldean dago, ibilbidearen eskuin aldean. Egin zaizkion erantsiek (xvii. mendean beste solairu bat gehitu zitzaion eta sartaldean etxe bat erantsi zai) ez dute eraikinaren jatorrizko itxura ezabatu: harlanduzko junturak eta bide aldera ematen duen dobelako erdi-puntuko arkuko gaineko bidea. Eskailera gotortu baten bidez iristen da dorretxeraino. Antzinako dorretxearen goiko solairuak egoitzazkoa izan behar zuen, ajimez-itxurako hainbat leiho-parerekin. 1500. urte ingurukoa, estilo gotikokoa.



**Ondarroa**

Arrantzale herria, 1327az geroztik foruduna, Artibai ibaiaren estuarioan dago kokatua, eta ez du lurralde-eremu zabalik, etxeak elkarren gainean pilatuta dituelarik; Berriatua herria dauka auzokide.

**Hiri paisaia**

Bitxia da elizaren kokagunea, ibaiaren azken bihurtzean, ondoan erribera eta zubi zaharra dituela. Eta aldapan gora Eliza Zaharreko edo Antiguako Andra Mariaren ermita. Kale aldapatsuetan, baita lauetan ere, Erdi Aroko dorre sendo eta luzeak eta etxe eta etxetzar neoklasikoak ikus daitezke, azken horiek frantziar armadak 1794an (Konbentzio gerra) herria ia oso-osorik erre zutenez geroztik eraikiak.

**Andra Maria eliza**

Ibaiek bere urak itsasora isuri eta hil aurretik, indartzeko arku-itxurako eus-

karriak –«upeltegi edo sotoak»–, behar izan zituen terraza natural baten gainean eraiki zen eliza handi eta ikusgarri hau, xv. mendean amaieran, 1480an. Oinplanoan lau angeluko espazioa da, ia berdintsuak diren hiru habeartetan eta lau tartetan banatuta, burualderik gabe. Bao, xurrutarri edo gargola, pinakulu eta karelen luxua eta dekorazio-aniztasuna dira aipagarrienak, baina buruhormaren gainean korridore bat dauka, eta korridore horren gainetik zenbait eskulturairudi ateratzen dira, 1500. urtearen inguruko Borgoinako usadioko jantzi eta burukoekin, itsasoari begira. Multzo ederra, benetan.

Barruko alde, berriz, Ignazio Iberoren planteamenduaren emaitza da, beronek 1744an ganga bat jarri baitzuen lehenago zurezko teilatua hutsa zegoen tokian.

Tenpluaren kanpoko aldean korridore zabal bat dago, ibaiertzaren gaineko begiratoki aparta. Alde horretako horman landutako ezkutua Gaztelako Koroaren babesaren lekukoa da. **Erretaula nagusia.** Buruhormaren erdi-erdian kokatua, egur polikromatuko makina handi bat da, ahur-ganbil itxurako planta edo oinplano mugitukoa, erdian marmol-itxurazkoak binakako zutabeekin. San Inazio eta San Frantzisko Xabierkoaren tailak altzariaren garai berekoak dira, rokoko estilokoak, 1770. urte ingurukoak. Eta polikromia neoklasikoa, Felipe Alkortaena, 1828koa.

Lehen tartean beste lau erretaula daude, batzuk rokoko estiloan Inazio Ibarretzek burututakoak, 1750. urte ingurukoak. **San Andres erretaula.** Tenpluaren oinetan dago, ezkerreko habeartean barruan, eta 1620. urte inguruko armazoi klasizista zorrotzeko pieza txikia da. Bertan Santa Katalinari eskaintzen zaio benerezioa, 1510. urte inguruko espainiar-flandestar taila bikainaren bidez. **Bataiarria.** Aparteko pieza, neurritz zein edertasunez, kareharri beltzean landuta. Kopak galloi ahur edo konkabo beheratuak dauzka, dekorazioa boladun kordoi edo axubetazkoa delarik. Gotikoa, 1510. urte ingurukoa. **Organoa.** Cavaille-Coll markakoa, 1868koa.



**Legenda**

- Zein toki bisitatu ibilbide honetan
- Autopista
- Ibilaldiko errepidea
- Oinarritzko sareko errepidea
- Eskualdeko errepidea
- Tokiko errepidea

